

**AKTA,  
ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA  
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL  
KONTSEILUARENA**

**LEHENDAKARITZA, 2019KO EKAINAREN 25A**

## **BERTARATU DIRENAK:**

**Iñigo Urkullu jauna**

LEHENDAKARIA

**Arantxa Tapia andrea**

EKONOMIAREN GARAPENeko ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUA

**Iñaki Arriola jauna**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

**Pedro Azpiazu jauna**

OGASUN ETA EKONOMIAKO SAILBURUA

**Cristina Uriarte andrea**

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

**Nekane Murga andrea**

OSASUNeko SAILBURUA

**Unai Rementeria jauna (bertaratu ezina azaldu du)**

BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

**Markel Olano jauna**

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

**Ramiro Gonzalez jauna**

ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

**Nekane Balluerka andrea**

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

**Bixente Atxa jauna**

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

**Jose M<sup>a</sup> Gibert jauna**

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

**Fernando Cossío jauna**

IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

**Manuel Salaverria jauna**

INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

**Emiliano Lopez Atxurra jauna**

TECNALIA-KO PRESIDENTEA

**Jesús M<sup>a</sup> Iriondo jauna**

IK4-KO LEHENDAKARIA

**Jesús M<sup>a</sup> Ugalde jauna**

JAKIUNDE-KO PRESIDENTEA

**Iñigo Ucin jauna**

MONDRAGON KORPORAZIOAREN PRESIDENTEA

**Francisco Riberas jauna**  
GESTAMP-EKO PRESIDENTEA

**Jorge Unda jauna**  
SENER-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

**Jesús Peña jauna**  
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

## 0. Ongietorria eta hasierako agurra.

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu ditu, eta ongiatorria eman die Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren 2019. urteko lehenengo bilerara.

## 1. Aurreko akta irakurtzea eta onestea.

*Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak iragan 2018ko abenduaren 11n egindako azken bileraren akta onetsi da.*

## 2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea.

Lehendakariak bileraren edukia azaldu du, oro har:

*“Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana burutzeko fasea hasitakoan, berriz ere bildu dugu Kontseilu hau, hurrengo ZTBP 2030 delakoaren oinarritzko lerroen aurrerapena aurkezteko, RIS3 Euskadi estrategiaren azken kanpo-ebaluazioaren ondorio nagusiekin batera. Ebaluazioa, zehazki, Lehiakortasunerako Orkestra Institutuak eta Europako Batzordeko Kevin Morgan irakasle adituak garatu dute.*

*Gainera, interesgarria iruditu zaigu bilera honetan berriaz jorratzea ikerketa-proiektu estrategikoak, bai eta horiek Euskadiren etorkizunerako duten garrantzia ere. Adibide gisa, Kontseilu honen parte diren erakundeek zuzendu dituzten ikerketa zientifiko, teknologiko eta industrialeko proiektu batzuk aurkeztuko ditugu.*

*Bileraren azken zatian, adimen artifiziala eta bere aplikazioak sustatzearekin lotutako ekimen berri bati buruzko informazioa emango dugu. Ekimen hori, zehazki, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzatik abiatuko da”.*

Sarrera horren ostean, bileraren gai-zerrenda aurkeztu du Lehendakariak. Jakinarazi duenez, azken atalaren ondoren, eta amaierako ondorioak egin baino lehen, galdera eta eskarien txanda egongo da.

Jarraian, Lehendakariak Jesús Peñari eman dio hitza, ZTBP 2020ren balantzea eta kanpo-ebaluazioa azal ditzan.

## 3. ZTBP 2020ren balantzea eta RIS3 Euskadi strategiaren hedapenaren kanpo-ebaluazioa (Orkestrak eta Kevin Morganek egindako txostenaren laburpena).

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako ordezkaria den Jesús Peñak laburbildu ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana – ZTBP Euskadi 2020 – hedatzeko orduan izandako lorpenak eta erdiesteko dauden erronkak.

**Lorpen nagusiak:** 1) RIS3 strategiaren hedapena burutua; 2) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistema estrategia bakarraren baitan bateratua; 3) Aurrekontuaren % 90 bete. Eusko Jaurkitzearen inbertsio-ahalegina % 105ekoa da; 4) Sistemaren eraginkortasun orokorra hobetua, emaitzei jarraikiz: a) Produktu berrien salmenten igoera; b) Esportazioen igoera teknologia ertain-altuko sektoreetan, eta

c) Indexatutako argitalpen zientifikoaren eta horien eraginaren hazkundera; 5) I+Gko funts europar lehiakorren itzulera-tasa positiboa.

**Erronka nagusiak:** 1) I+Gren gainera inbertsioa areagotzea; 2) I+Gren gainera enpresa-inbertsioak sustatzea, krisitik berreskuratu ez direnak; 3) Ahulezia gaitzea enpresa txiki eta ertainen berrikuntzan, bai antolakuntza eta merkaturatzeko berrikuntza ez teknologikoan, bai berrikuntza teknologikoan, eta 4) Emakumeak zientzia, teknologia eta berrikuntzaren eremuan duen rola indartzea.

Jarraian, Orkestrak eta Kevin Morganek RIS3 estrategiaren hedapenaren gainera garatutako kanpo-ebaluazioaren ondorio nagusiak laburbildu ditu Jesús Peñak. Txostenaren arabera, Euskadik ezarpen-prozesu malgua, bizia eta dinamikoa garatu du, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema osoaren inplikazioarekin.

Kanpo-txostenean jasotako **alderdi positibo** nagusiak honako hauek dira: 1) Epe luzearako lankidetzarako espazio malguen sorrera; 2) Berrikuntzaren gainera kontzientzia handiagoa duen euskal gizartea; 3) RIS3 Euskadi estrategian integratuago dauden enpresa txiki eta ertainak; 4) Merkaturatik hurbilago dauden proiektuen garapena, eta 5) Unibertsitateen konpromisoa eta RIS3 estrategiarekiko bateratze handiagoa.

Orkestraren eta Kevin Morganen kanpo-ebaluazioak **hobetu beharreko** honako eremu hauek aipatzen ditu: 1) Gizarte-erronkak estrategian hobeto txertatzea; 2) Lankidetzaren handiagoa ezartzea lehentasun estrategikoen eta aukera-lurraldeen artean; 3) Berrikuntzari bultzada handiagoa ematea enpresa txiki eta ertainetan; 4) Euskadiko proiektu estrategikoak babesteko tresna berriak garatzea, eta 5) Europako presentzia eta eskualdearteko lankidetzaren sustatzea RIS3n.

#### **4. Gai nagusia: Ikerketa estrategikoko proiektuak**

##### **Sarrera. Arantxa Tapia. Ikerketa Estrategikoaren garrantzia Euskadirentzat eta babes-programak**

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua den Arantxa Tapiak hitz egin du, Hazitek aurkezteko: Eusko Jaurlaritzaren babes-programa nagusia, enpresa-arloko I+G proiektuak garatzeko. RIS3ren lehentasunezko eremu estrategikoak eta merkaturatik hurbilago dauden ikerketa-jarduerak jorratzen ditu Hazitek-ek, emaitza teknologikoak eta eragin ekonomikoa lortzeko, euskal enpresen lehiakortasuna indartu ahala.

2016. eta 2019. urteen artean, Hazitek programak 307 milioi euro baino gehiago bideratu ditu enpresa-arloan I+G finantzatzeko. Hala, urtean batez beste 800 enpresa babestu ditu, guztira 3.150 proiektu baino gehiagorekin, 1.121 milioi eurotik gorako inbertsio mobilizatua eraginda.

Hazitek-ek babestutako I+Gko proiektuen artean, sailburuak proiektu estrategikoak nabarmendu ditu. Izan ere, horietan parte hartzen dute gutxienez 3 enpresak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak lankidetzan aritzen dira, eta 3 urterako gutxienez 4 milioi euroko aurrekontua dute.

2017 eta 2018 artean, Hazitek programaren bidez 67 ikerketa-proiektu estrategiko babestu dira. 2019an, beste 33 proiektu babestuko dira. Hala, urte honetan bertan beteko da honako xedea: legealdi honetan 100 ikerketa-proiektu estrategiko sustatzea.

Amaitzeko, Arantxa Tapiak berariaz azpimarratu du Hazitek-en jasotako diru-laguntzako euro bakoitzeko enpresek ia 3 euro (2,7 euro) inbertitzen dituztela, eta, beraz, mobilizatutako aurrekontu osoa diru-laguntzen zenbatekoa 3,7 aldiz adina dela. Babestutako proiektu estrategikoen aurrekontu osoaren % 24 erabiltzen da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean dauden gaitasunak azpi-kontratatzeko, eta horrek biziki laguntzen du euskal berrikuntza-sistema egituratu eta dinamizatzeke orduan.

## **Ikerketa zientifiko, teknologiko eta industrialeko proiektuen zenbait adibide:**

### **4.1. Iñigo Ucin eta Bixente Atxa. Proiektua: ‘COSMOHS. Turbo gain-elikadurako gidaritzza-sistema berria motor hibrido eta super-eraginkorretarako’.**

Mondragon Korporazioaren presidentea den Iñigo Ucin hasi da hizketan, eta Cikautxo taldea deskribatu du, horrexek zuzentzen baitu “Cosmohs proiektuaren” partzuergoa. Barruko erregai-motorraren eraginkortasuna hobetzeko proiektua da. Motor honek erabilera oso altua izaten jarraituko du denbora batez automobilgintzaren sektorean, eta, ondorioz, garrantzitsua da turbo-konpresioko ohiko teknologiak hobetzea, gasolina-motorrek propulsiio-iturri eskuragarri eta eraginkorrak izaten jarrai dezaten.

Iñigo Ucinek eta Mondragon Unibertsitateko errektorea den Bixente Atxak azaldu dutenez, proiektuaren helburu zehatza honako hau da: teknologia eta material berriak ikertzea, ibilgailu hibrido eta super-eraginkorren etorkizuneko motorren gain-elikadurako sistema berria garatu ahal izateko. Turbo gain-elikadurako gidaritzza-sistemarako irtenbide teknologiko lehiakor eta puntakoa da, motorraren eraginkortasuna hobetuko baitu, kontsumoa eta CO2 isuriak murriztu ahala.

### **4.2. Jose M<sup>a</sup> Gibert. Proiektua: ‘WASTE4THINK. Bizi-zikloaren pentsamendurantz, hondakinak kudeatzeko sistema aurreratuak txertatuz’.**

Deustuko Unibertsitateko errektorea den Jose M<sup>a</sup> Gibertek deskribatu du “Waste4think proiektua”, DeustoTech-ek zuzentzen duena eta Horizonte 2020 esparru-programa europarrak finantzatzeko duena. Hondakinak kudeatzeko sistema berri baterantz jotzea du helburu, hondakinak tratatu eta ezabatzeko eredu tradizionaletatik materialak birziklatu eta berreskuratzen dituzten eredu etara pasatuta, Ekonomia Zirkularren printzipioetan oinarrituta.

Waste4Think-en partzuergoa 6 herrialde europarretako 19 bazkidek osatzen dute, eta 4 esperientzia pilotu egingo dira 4 herrialde desberdinetako udalerrietan, irtenbideak etorkizunean errepikatzeke modukoak izan daitezten.

Jose M<sup>a</sup> Gibert-ek azaldu duenez, Zamudio izango da Espainiako estatuan lehen udalerria edukiontzi adimendunak erabiliz sorrera bidezko ordainketa-sistema (PAYT) ezartzen. Lan hori, gainera, herritarrak barne hartu dituen sorkuntza-prozesu baten bidez garatu da. Bestalde, Aranoltza auzoko proiektu pilotua % 13tik % 67ra pasa da birziklatze-tasan, eta, gainera, hondakinen kudeaketa integraleke metodologia egiten lagundu du, iraunkortasuneko irizpideak aplikatuta.

### **4.3. Emiliano Lopez Atxurra. Proiektua: ‘AIGeCo. Sorrera eta Kontsumo Elektrikoaren Gehitzaile Adimenduna’.**

Tecnaliako presidentea den Emiliano Lopez Atxurak deskribatu du "AlGeCO proiektua", Hazitek programak babestua eta Petronor-ek zuzendua. Honako hau da proiektuaren helburu nagusia: elektrizitatearen azken erabiltzaileek toki-mailan beren energia modu berriztagarrian ekoizteko eta gehitze birtualeko mekanismoen bidez beraien artean soberakinak trukatu ahal izateko aukera eskaintzen duen eszenatokian euskal enpresak posizionatzeko teknologiak garatzea. Horretarako, adimen artifiziala, datuen azterketa, eta blockhain bezalako teknologien gainean ikertzen da.

Proiektua garatzen duen industria-partzuergoak espero dituen emaitza nagusiak honako hauek dira: zerbitzu elektriko aurreratu berriak, kontagailu elektriko adimendun modular berriak eta energia kudeatzeko estrategietarako algoritmo berriak (elkar konektatutako sistemetan jarduteko bideratuak) gehitzeko sistema adimenduna.

#### **4.4. Nekane Balluerka. Proiektua: 'EMPATHIC. Entrenatzaile birtual aurreratu, enpatikoa eta adierazkorra, pertsona nagusien bizimodu osasuntsu independenteko urteak hobetzeko'.**

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea den Nekane Balluerkak zientzia, teknologia eta ingeniaritza pertsonen zerbitzura jartzeko gizarte-erronkan kokatu du "Empathic" proiektua. Proiektua finantzatzen duen Horizonte 2020 esparru-programa europarraren "I. Gizarte-erronkak" oinarriarekin bat datorren proiektua da. Euskal Herriko Unibertsitatearen lidergotza pean, 7 herrialde desberdinetako 11 erakundek parte hartzen dute Empathic-en.

Sistema adimendun berriak ikertu, berritu, aztertu eta baliozkotu nahi dira proiektuan, entrenatzaile birtual pertsonalizatuak erabil daitezela beren etxean modu independentean bizi diren pertsona nagusiei laguntzeko. Modalitate anitzeko aurpegi-azterketa berritzaileak, elkarrizketa egokituko sistemak, eta hizkuntza naturaleko interfazeak dira, besteak beste, proiektu honetan ikertuko direnak.

Empathic-en helburu zehatzen artean dago, bestetik, entrenatzaile-laguntzaile birtual bat garatzea, pertsonen ongizatea hobetzeko. Hala, pertsonak inplikaturako lirateke proiektua diseinatzeko fasean, azken emaitza beren beharrezanetara egokitu dadin. Horrez gain, pribatutasuna zaintzen duten elkarrekintzako teknologia ez intrusiboak txertatuko lirateke.

Proiektuaren emaitzarik nabarmenen artean honako hauek aipatzen dira: pertsona nagusien independentzia- eta ongizate-maila areagotzea, autozaintzako kostuak murriztea, berrikuntzako aukera berriak, enplegarritasuna, eta balio teknologiko eta sozial altuko ekintzailtza, bai eta zientzia kognitiboaren eta neurozientzien gaineko aurrerapenak ere.

#### **4.5. Francisco Riberas. 'Cold Hot 4.0' eta 'Ibilgailu Elektrikoaren Bikaintasun Zentroa 4.0' proiektuak.**

Gestamp-eko presidentea den Francisco Riberasek kokatu ditu aurkeztutako bi proiektuak Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzaren esparruan, automobilgintzaren sektorean I+G sustatzeko.

Francisco Riberasek deskribatu du diseinu eta material berriei lotutako estanzazio-teknologia berrien Cold-Hot proiektua (Multistep), bai eta Ibilgailu Elektrikoaren & Industria 4.0ren Bikaintasun Zentroa ere.

Euskadiko bikaintasun-zentroa pisu-arintze, ibilgailu elektriko, txasis eta berotako estanzatzearen arloetan mundu-mailako erreferentzia bihurtzea da Gestamp-en konpromisoa.

Euskadiko I+G Bikaintasun Zentroaren alderdirik positiboak zerrendatu ditu: 1) Euskadi lidergotza-postuetan kokatzea "Ibilgailu Elektriko Berria" (IEB) eta "Industria 4.0" garatzeko orduan; 2) Ezagutzan nodo bat sortzea IEBen eta Industria 4.0ren inguruan, bai eta traktore-efektua ere balio-kate osoaren gainean; 3) Etorkizun hurbilenean behar diren eskumen berrietarako langileak erakartzea, bai eta zentro berriaren eta bere teknologien inguruan talentua erakartzea ere, eta 4) Lanpostu berriak sortzea bai Gestamp-en, bai balio-katean, IEBen eta Industria 4.0ren I+Gekin lotuta.

## **5. ZTBP 2030en oinarri estrategiko eta ekonomikoen aurrerapena**

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako hurrengo Planaren lerro estrategiko eta ekonomikoen aurrerapena aurkeztu du Jesús Peñak. Plana egiteko prozesua, izan ere, dagoeneko martxan dago.

ZTBP 2030 plana bat etorriko da Horizonte Europa ikerketa-esparru europarreko programa berriarekin. ZTBP 2030en xedea honakoa hau izango da: berrikuntzako eskualde europar aurreratuenen artean kokatzea Euskadi, dituen bizi-maila altua eta enplegu-kalitate handia kontuan hartuta.

Azken xedea izango da, bestetik, Euskadiko gizarte-erronka nagusietako batzuk ebaztea, besteak beste: osasuna, enplegua, digitalizazioa, klima-aldaketa eta genero-berdintasuna, NBEren 2030eko Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat.

Jesús Peñak azaldu duenez, plan berriak hiru aldaketa handiri erantzungo die, gizartean eta ekonomian eragina izaten ari baitira mundu-mailan: teknologia-digitalizazioa, ekologia-ingurumena, eta demografia. Horretarako, Plan berriaren oinarrizko lerroen artean sartzen da I+Gn enpresa-inbertsioa areagotzea, lankidetzako ikerketa-proiektu traktore nagusiak indartuz. Halaber, enpresa txiki eta ertainetan ere sustatuko da berrikuntza, 'azken miliara arte' hurbilduz bai berrikuntza teknologikoa, bai, batez ere, berrikuntza ez teknologikoa, merkaturatzearekin, antolakuntzarekin eta negozio-eredu berriekin lotuta.

Aurrekontuen ikuspegitik, Plan berriaren aurrerapen horretan azaltzen denez, Jaurlaritzaren konpromisoa da I+G babesteko partiden urteko hazkuntzaren % 5eko egungo tasari eustea, eta are, hura areagotzea ere.

Aurkeztutako oinarrizko lerroen aurrerapen horretatik aurrera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako agente nagusiekin informazioa egiaztatu eta aberasteko txanda zabala hasiko da. Helburua honako hau da: ZTBP 2030 berriaren oinarrizko lerro estrategikoak abenduan egingo den Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluan aurkeztu eta onartu daitezela.

## **6. Esku-hartzeak eta galderak.**

Galdera eta eskarien txanda hasi baino lehen, Lehendakariak adimen artifiziala eta bere aplikazioak Euskadin garatzeko ekimen estrategiko berri baten berri eman du:

*Jaurlaritza lan diskretua egiten ari da enpresa-munduko eta teknologia-zentroetako ordezkariekin, ekimen berri bat abiarazteko. Hala, 5G sare berriak hedatzen eta digitalizatzen ari diren eszenatoki berriak irtetzen ari diren aukerak aprobeztatu nahi dira.*

*Adimen artifizialari buruz ari gara, egungo ekonomian eta gizartean azkartasun handienaz sartzen ari den teknologietako bat dela ulertzen dugulako. Gorabidean den teknologia hori, halaber, arlo ugartan aplikatu daitezke: industrian, osasunean, energian, kliman edo ingurumenean, eta, beraz, aditu askoren ustez, lehen industria-iraultzaren pareko aldaketa eragin lezake.*

*Herrialde aurreratuenek (besteak beste, AEB, Erresuma Batua, Frantzia edo Txinak) eta Europako Batzordeak inbertsio garrantzitsuak planteatu dituzte adimen artifizialeko ikerketaren gainean datozen urteetan.*

*Errealitate hori eta adimen artifizialak berehalako etorkizunean izango duen garrantzia kontuan hartuta, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzatik arlo honetan proiektu bat sustatu nahi da: Basque Artificial Intelligence Center. Proiektu horrek lau helburu nagusi ditu:*



1. *Euskadin arlo honetan dauden gaitasun zientifiko-teknologiko-enpresarialak antolatu, indartu eta koordinatzea.*
2. *Euskal ekosistema ikertzaile eta berritzailearen beharrezko erabilgarria den talentu zehatza sustatu, atxiki eta erakartzea.*
3. *Euskadik adimen artifizialaren arloan nazioartean duen proiektzioa eta konektibitatea sustatzea.*
4. *Ekintzailetza, enpresen sorrera eta enpresa-dibertsifikazioa sustatzea lehendik aipatutako adimen artifizialaren eremuan.*

*Oinarri horiek abiapuntutzat hartuta, talde sustatzaile bat eratu nahi dugu, honako hauen ordezkariak hein berean osatua: Jaurkitzaileak, eremu honetan gaitasunak dituzten teknologia- eta ikerketa-zentroak, eta adimen artifizialeko aplikazioak garatzeko interesa duten enpresak. Hala, abiapuntuko oinarriak egiaztatuko dira, bai eta enpresen bideragarritasun ekonomiko eta interesa berretsiko ere. 2020. urtearen hasieran hasiko ahalko den behin betiko proiektu bat edukitzea da helburua”.*

Ondoren, egindako azalpenen gainean galderak, esku-hartzeak eta iruzkinak egiteko txanda ireki du Lehendakariak, laborantziari eta partekatutako ondorioei ekin baino lehen.

Jakiundeko presidentea den Jesus M<sup>a</sup> Ugaldek azpiegitura zientifiko-teknologikoen maparen informazioa eta erabilera hobetzeko moduari buruz galdetu du. Sare horren elkarriketa lkerbasquen eginkizuna dela erantzun du Hezkuntzako sailburuak. Hala ere, gaineratu duenez, hura eguneratzeko erantzukizuna ikertzaileena eta haren parte diren ikerketa-taldeena da, zuzenean. Gai horretan, Manu Salaverriak Basque Digital Innovation Hub-en katalogoa aipatu du adibide gisa.

Jarraian, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea den Nekane Balluerka andreak diziplina anitzeko lankidetzan sakontzeko beharrezko adierazi du, I+Gren proiektuak arrakasta-berme gehiagorekin jorratze aldera. Proiektuok gizartean duten eragina baloratzea garrantzitsua dela azpimarratu du. Era berean, sustatzen ari den adimen artifizialeko zentro berriak unibertsitateak izan ditzakeen gaitasunak azaldu ditu.

Tecnaliako presidentea den Emiliano Lopez Aturrak estatuko eta Europako erakundeekiko lankidetzan indartzeko beharrezko iradoki du. Era berean, Europako Batzordetik laster liberatuko diren adituak edukitzeko aukera gailendu du, bai eta gaur egun administrazio europarretan lanpostu gakoak betetzen dituzten pertsona lankideen sare bat ezartzeko beharrezko iradoki du.

Bestetik, Jesus M<sup>a</sup> Iriondok berariaz gomendatu du hurrengo ZTBPN sar dadila erosketa publiko berritzailea, produktu berriak dinamizatzeko elementu gisa. Klima-aldaketaren gaian, beharrezko teknologiak sar daitezela iradoki du, ez soilik hari aurre egiteko, baizik eta hartara egokitzeko ere.

Mondragon Unibertsitateko errektorea den Bixente Atxak talentua erakarri eta atxikitze beharrezko iradoki du, emigrazioetik datorren talentua barne.

Azkenik, Jesus M<sup>a</sup> Ugaldek, teknologia berriekin lotuta, nanofotonikarekin eta spintronikarekin lotutako teknologiak kontuan hartu behar direla iradoki du.

## 7. Laburpena eta ondorioak

Balorazioak egin ondoren, Lehendakariak bileraren garapenaren laburpena egin du:

*“ZTBP Euskadi 2020 amaitzen ari den honetan, lehen etaparen balantzea positiboa dela egiaztatu da. RIS3 Euskadi estrategiaren hedapena osatu dugu, eta aurrekontuaren % 90 betearazi. Gainera, inbertsio horiekin batera, eraginkortasuna orokorrean hobetu egin da, emaitza zientifiko, teknologiko eta enpresarialetan ikus daitekeenez.*

*Kevin Morganek eta Orkestrak garatutako kanpo-ebaluazioaren arabera, Euskadik RIS3 strategiaren ezarpen-prozesu malgua, bizia eta dinamikoa garatu du, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema osoaren inplikazioarekin. Txostenak lorpen nagusien artean azpimarratu ditu: epe luzerako lankidetzarako espazio malguen sorrera, berrikuntzaren gaineko kontzientzia handiagoa duen euskal gizartea, RIS3 Euskadi estrategian integratuago dauden enpresa txiki eta ertainak, merkatutik hurbilago dauden proiektuen garapena, eta unibertsitateen konpromiso eta bateratze handiagoa.*

*Hobetu beharreko alderdien artean honakoak iradoki dira: gizarte-erronkak estrategian hobeto txertatzea, lankidetzaren handiagoa ezartzea lehentasun estrategikoen eta aukera-lurraldeen artean, berrikuntzari bultzada handiagoa ematea enpresa txiki eta ertainetan, Euskadiko proiektu estrategikoak babesteko tresna berriak garatzea, eta Europako presentzia eta eskualdearteko lankidetzaren sustatzea RIS3n.*

*Balantzea positiboa da, baina ez dago autokonplazentziarako denborarik. Europako eskualdeetako berrikuntzaren azken txostenak -RIS 2019 txostenak- berretsi egin du Euskadik aurrera egiten duela, baina besteek ere korrika egiten dutela eta azkarragoak direla. Iraupen-lasterketa bat da. European eskualde berritzaile erreferente gisa ezagunak izan nahi badugu, gauzak besteek baino hobeto eta azkarrago egin behar ditugu. Berrikuntzaren lasterketa orokorra elkarrekin lanean baino ezingo dugu irabazi. Erantzukizun hori guztioi dagokigu: administrazio publikoei, enpresei eta euskal gizarte osoari.*

*Aipatutako balantzea eta egindako hausnarketa kontuan hartuta, hurrengo ZTBP 2030 delakoaren oinarri ekonomiko eta estrategikoen lehen aurrerapena aurkeztu dugu. Horizonte Europa esparru-programa berriarekin bat, ZTBP 2030 berriak aukera emango du berrikuntzako eskualde europar aurreratuen artean kokatzeko, Euskadiko gizarte-erronka nagusiak ebatzen lagundu ahala: osasuna, enplegua, digitalizazioa, klima-aldaketa eta genero-berdintasuna, horiek guztiak 2030eko Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat eginik.*

*Aurrekontuen ikuspegitik, eta aurrerapen horretan azaltzen denez, Jaurlaritzaren konpromisoa da I+G babesteko partiden urteko hazkuntzaren egungo tasari eustea, eta are, hura areagotzea ere.*

*ZTBP 2030en gainean aurkeztutako lerro orokorren aurrerapen honetatik aurrera, horiek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako agente nagusiekin egiaztatzeko txanda zabala irekiko da, urte amaieran Kontseilu honetan aurkeztu eta behin betiko onar daitezen”.*

Ondorioak:

**Lehenengoa:** Positiboki baloratzea ZTBP 2020ren egoeraren balantzea eta Orkestrak eta Kevin Morgan adituak garatutako kanpo-ebaluazioa. Azken horrek Euskadi praktika europar onen artean kokatzen du, RIS3 estrategia diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko prozesuan.

**Bigarrena:** Ikerketa estrategiko zientifiko, teknologiko eta enpresarialak Euskadiren etorkizunerako duen garrantzia azpimarratzea, eta positiboki baloratzea adimen artifizialaren eta bere aplikazioen bultzada.

**Hirugarrena:** Hurrengo ZTBP 2030en oinarri estrategiko eta ekonomikoen aurrerapenaren aldeko txostena ematea. Oinarri horiek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako agente nagusiekin egiaztatu eta aberastuko dira, hurrengo Kontseiluan behin betiko onartu baino lehen.

**Laugarrena:** Jaurlaritzak egindako aurrekontu-ahalegina finkatzea, eta hurrengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planean indartzea, Euskadi berrikuntzaren arloko eskualde europar aurreratuenen artean kokatzeko.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera 19:00etan amaitu da.



Jesus Peña Martínez

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA ETA LEHENDAKARIAREN ORDEZKARIA ZIENTZIA,  
TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO PLANERAKO

